

Albisteak

Doako bisitak sagardoetxea barrutik ezagutzeko

Sagardoetxea Museoa bera eta bere jarduera herritarren artean ezagutzara emateko, otsaileko igandetan doako bisita gidatuak eskainiko dizkie herritarrei Sagardoetxea barru-barrutik eta osotasunean ezagutzeko.

2021-02-10



Urte sasoi honetan herriko sagardotegi ezberdinak bisitatu eta sagardotegiko esperientziaz gozaten egon behar genuen, baina pandemiaren egoera dela eta, 2021eko sagardotegi denboraldiaren hasiera atzeratu eta sagardotegi batzuek beranduago irekitzeko erabakia hartu dute.

Halere, Sagardoetxeak irekita jarraitzen du sagardoaren kultura bisitarien artean sustatzeko, eta helburu horrekin, doako bisita gidatuak eskainiko ditu herritarrentzat otsaileko igande hauetan:

- › Egunak: otsailak 7, 14, 21 eta 28
- › Ordutegiak: 11:00, 12:00 eta 13:00
- › Pertsona kopurua talde bakoitzeko: 4 pax + gida

Doako bisita hauetan parte hartu nahi duten herritarrek, aurrez erreserba bat egin beharko dute bisita eguna, ordua eta pertsona kopurua zehaztuz 943 550 575 telefonora deituta edo info@sagardoetxea.eus helbidera idatzita.

© Astigarragako udala · Tel: 943 335050 · udala@astigarraga.eus · Foru Enparantza 13 · 20115
Astigarraga